



Euskadiko energia- pobretasunari buruzko gizarte- eztabaidarako oinarriak

Arartekoaren 1/2016 Gomendio
orokorra, urtarrilaren 26koa.



www.ararteko.eus

Euskadiko energia- pobretasunari buruzko gizarte-eztabaidarako oinarriak



Aurkibidea

1. Zergatik hitz egiten dugu energia-pobretasunari buruz?
 - 1.1. Sarrera
 - 1.2. Energia-pobretasuna gizarte-fenomeno gisa
 - 1.3. Energia-pobretasunaren ondorioak
2. Herri agintarien jarduera-eremua energia-pobretasunaren fenomenoari aurre emateko
 - 2.1. Europar Batasuna eta energia-pobretasunaren aurka borrokatzeko ekintza-planak
 - 2.2. Energia-pobretasuna Europan
 - 2.3. Energia-pobretasuna Espainian
 - 2.4. Euskadi eta energia-pobretasuna
3. Energia-pobretasunaren aurka borrokatzeko ekintza-planetan aintzat hartu beharreko printzipioak.
4. Energia-pobretasunaren aurkako jarduera-proposamenak eta gomendioak
 - 4.1. Energia-sektorearen eta kontsumitzaile zaugarrienen arauketa-eremua
 - 4.2. Energiaren kontsumitzailerik zaugarriena babesteko neurriak.
 - 4.3. Energiaren pobretasunak eragindako etxebizitzetan eta eraikinetan energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak
 - 4.4. Energia-pobretasunaren ondorioak arintzeko gizarte-neurriak



1. Zergatik hitz egiten dugu energia-pobretasunari buruz?

1.1. Sarrera

XXI. mende betean, Euskadin, gero eta jende gehiagok zailtasunak ditu hilabete hotzetan etxean tenperatura egokia mantentzeko. Zehazki, biztanleen % 10 baino gehiagok ditu arazo horiek. [Behar sozialei eta pobrezari buruzko 2014ko inkestak](#), Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko pobrezaren eta ongizate-gabeziaren adierazle desberdinak aztertzeko egiten duen dokumentuak, bi datu islatzen ditu, 2008-2012 aldian igoera handia izan dutenak. Hotza egiten duen urteko hilabete hotzetan etxea tenperatura egokian mantentzeko arazoak dituzten pertsonen kopurua 235.526raino iritsi da 2014an, 2008an, 90.000 baino gutxiago izanik. Bestetik, etxean zerbitzu energetikoen horniduran (ura, argia edo telefonoa barne) etenaldiak izan dituzten biztanleak 38.255 izan dira 2014an, 2008an, berriz, 35.191.

Adierazle horri "energia-pobretasuna" (edo "pobretasun energetikoa") deritzo, eta etxean zerbitzu energetikoak (gasa edo argia) izateko arazo larriak edo ezintasuna islatzen duen fenomeno soziala da. Baliabide ekonomiko nahikorik ez izatearen ondorioz gertatzen da normalean, baina etxebizitzak baldintza objektibo txarrak izateagatik edo baliabide energetikoen prezioa gehiegizkoa delako ere gerta daiteke.

Hainbat kolektibok egin dute duela urte gutxi arte gure ingurunean ezezagun samarra izan den arazo horri buruzko alerta-deia. 2012an Espainiako energia-pobretasunari buruzko lehen txostena aurkeztu zuen Ingurumen Zientzien Elkarteak (ACA) edo [Eredu Energetiko Berri Baterako Plataformak](#) –Euskadin, Gure Energia– egungo eredu energetikoari buruzko aldarrikapenak eginez agerian jarri dute errealitate gogor hori. Gai hau [Sindic de Greuges](#) (Kataluniako arartekoa) edo [Herriaren Defendatzailea](#) (Espainiako arartekoa) bezalako erakundeek lanari esker sartu da agenda publikoan. Izan ere, erakunde horiek hainbat proposamen aurkeztu dizkiete herri-administrazioei, kolektibo ahulenak zehazteko helburuz. Sindic de Greuges-ek bere [2013ko urriko Kataluniako energia-pobretasunari buruzko txostenean](#) dagoeneko aipatu du pobrezia energetikoaren aurkako borroka lehentasun soziala dela eta gizarte-eremu guztien ikuspuntutik aztertu behar dela.

Arartekoaren erakundeak ere egokia deritzo Euskadin energia-pobretasuna ezagutu eta saihesteko hausnarketa sakona egiteari. Hori dela eta, eztabaidarako oinarriak jasotzen dituen dokumentu hau aurkezten dugu. Agiri irekia da, talde, gizarte-eragile eta interesa duten erakunde desberdinei zuzenduta, eta euskal administrazioei proposamen eta gomendioak emateko asmoz sortu da. Dagoeneko existitzen diren politika publikoak eta gizarte-ekimenak laguntzeko neurriak eta ekintza espezifikoak abian jarri behar dira, negu

honetan Euskadin 200.000 baino biztanle gehiagori eragingo dion fenomenoaren ondorioak murriztu eta arintzeko.

1.2. Energia-pobretasuna gizarte-fenomeno gisa

- **Energia-pobretasuna definitzeko beharra.** Lehendabizi, pobrezia energetikoa kontzeptu bezala pobrezia orokorretik bereizi behar da. Energia-pobretasunaren ezaugarria nagusia zera da: pertsona batzuek baliabide ekonomiko nahikorik ez edukitzea, etxean energiari loturiko oinarritzko estandarrak betetzeko.

Gauzak horrela, energia-pobretasuna errealitate gogorra da, kasu askotan, pobrezia eta prekaritate-egoera larriago batean ezkutatua. Pobrezia, oro har, fenomeno sozial eta ekonomikoa da, ondasun eta baliabiderik eza edo urritasuna ezaugarri duena. Nazio Batuen kasuan, honela definitu da: *"gizakiaren oinarritzko premiak (janaria, edateko ura, osasun instalazioak, osasuna, etxebizitza, hezkuntza eta informazioa) asetzeko aukeraren gabezia larria ezaugarri duen egoera. Pobrezia ez da bakarrik diru-sarrerarik eza, zerbitzuak erabiltzeko aukerarik eza ere bada"* (Nazio Batuen Erakundea, 1995: 57).

Gaur egungo gizartean energia oso garrantzitsua da biztanleen ongizaterako. Garrantzi horrek sortzen du energia-pobretasuna beste pobrezia-adierazleetatik bereitzeko beharra. Energia guztion ondasuna da, oinarritzkoa eta ezinbestekoa, herritarrei bizitza duina izateko aukera ematen diena. Behar bezalako etxebizitzaz gozatzeko eskubidea benetan bermatzeko tresna bihurtu da.

Energia-hornidura egokia izateko zailtasunak egotea ez da arazo berria gure ingurunean. Energia-pobretasun izena ingeleseko *fuel poverty* hitzetatik dator, eta hamarkadak dira Erresuma Batua, Irlanda edo Belgika bezalako herrialdeetako agenda politikoan sartuta dagoela. Izan ere, herrialde horietan pobrezia alderdi berezi hura jorratzen ari da, fenomenoaren hedapena gelditzeko neurri bereziak praktikan jartzeko helburuz. Espainiako estatuan ere agertu da, azken urteotan. Europako Erkidegoko Zuzenbidean duela gutxi onartu den erregulazioaren ondorioz, gai hau dagoeneko sartu da gure barne-zuzenbidean, zehazki, aurrerantzean aztertuko ditugun arau-xedapenetan.

Fenomeno horren ezaugarri bereziak ikusita, kontuan izan behar da energia-baliabideen urritasuna ez bakarrik pertsonen egoera ekonomikoari dagoela lotuta. Energiaren premia etxeko baldintza objektiboekin estu lotuta dago (etxebizitza mota, eraikitze erabili diren materialak, isolamendua edo energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak). Era berean, badu lotura zerbitzu energetikoen hornidura-merkatuko baldintzekin (zenbatekoak diren zerbitzuaren kostuak, energia-iturriak erabiltzeko sistema zentralizatu edo deszentralizatu izatea). Gauzak horrela, energia-pobretasunak ez die eragiten errenta txikia duten pertsonen bakarrik, baizik eta eraikinaren baldintza txarren edo energiaren prezio altuaren ondorioz gehiegizko gastu energetikoa jasan behar duten kolektiboek ere eragin diezaieke.

- **Energia-pobretasuna ezaugarritzea.** Energia-pobretasunak azterketa berezi bat eskatzen du, beste baliabideen gabezia- edo urritasun-egoera batzuek ez bezalako, etxebizitza-sektore jakin bateko energia-premien ezaugarrietatik sortzen baita batez ere, jarraian azaltzen dugun bezalaxe.

- ❖ **Energiaren fakturak gora egitea.** Ezin daiteke ukatu azken urteotan energiaren fakturak, eta bereziki, argindarrarenak gora egin duela. Ondorioz, energiaren kontsumitzaileak ezin dio eutsi zerbitzuak baldintza egokietan izateko estandarrei.

- ❖ **Ekonomia-krisia eta pertsonen errenta murriztea.** Krisi ekonomikoaren ondorioz, oro har, pertsonen, eta bereziki kolektibo ahulen errenta erabilgarriaren mailak jaitsi egin dira. Egoera horrek zailago bihurtu edo erabat eragotzi die pertsona askori zerbitzu energetikoak ordaintzea. Era berean, krisia oztopo handia bihurtu da gaur egungo hirigintza- eta eraikuntza-araudiak ezarritako energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko baldintzak betetzeari aurre egin ahal izateko.
- ❖ **Etxeko kontsumo energetikoaren igoera.** Gure gizartean, ongizatearen eskakizunak energia-kontsumoari lotuta daude eta aurreko belaunaldiek baino energia gehiago kontsumitzea eskatzen da. Zuzena da esatea sistema baliabideen eskuragarritasunean edo kontsumitzeko aukera ematean oinarritu dela, energia aurreztean edo eraginkortasunean baino. Agian, ohitura berriak sortu ditugu, baina zalantzazkoa izan daiteke horien benetako premia edo zerbitzuaren kalitatea. Etika-, gizarte- edo ingurumen-arazoak eztabaidan sartzearen garrantzia alde batera utzita, egia da gure gizarteak gaur egun zerbitzu energetiko zehatz batzuk behar dituela, ongizatearen estandar egokiak lortzeko.

Etxeetan ezinbestekoak diren zerbitzu horiek (adibidez, berokuntza, ur beroa, etxetresnak erabiltzeko behar orokorra, eta egoera zehatz batzuetan aire girotua ere), kolektiboaren pertzepzioan, bizigarritasun eta osasungarritasunaren gutxieneko baldintzen zati bereizezina izatera igaro dira.

Energia-zerbitzu horien kostuak kontsumitzea erraztu du, eta ez energia aurreztea edo eraginkortasunez erabiltzea. Luzaroan fakturak ez zuen islatzen merkatuko prezio erreala, kanpoko beste kostu batzuk (gizarte- edo ingurumen-kostuak) barne hartzen ez zituelako.

- ❖ **Energiaren aldetik, eraikin eta etxebizitza-parkea zaharkitua izatea.** Zerbitzuen kostuak zerikusi zuzena du etxea eraikitzeke moduarekin eta kontserbazio-egoerarekin. Eraikuntzan energia eraginkortasunez erabiltzeko eskakizun tekniko berriek nabarmen murrizten dute energia-kontsumoa. Hala ere, urte asko behar dira energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak dagoeneko eraikita dagoen etxebizitza-parkean abian jartzeko. Izan ere, parke hori kasu askotan zaharkituta dago eta ez dago behar bezala egokituta eskakizun horietara.
- ❖ **Energia berriztagarriak erabiltzeko eta kudeaketa energetiko deszentralizatua izateko aukera.** Azpimarratu behar da etxebizitzari loturiko energiaren sektoreak hainbat aukera berri eskaintzen dituela, energia-iturri berriztagarriak (adibidez, fotovoltaikoa) edo kudeaketa-sistema deszentralizatua ahalbidetzen duten teknologia berriak garatzeari esker. Ingurumen-onura horiek –hau da, energia aurreztea eta eraginkortasunez erabiltzea– faktura murrizteaz gain, ingurumenari loturiko beste alderdi batzuetan ere eragina dute. Adibidez, murriztu egin daitezke batez ere erregai fosiletatik eratorritako energia kontsumitzen denean sortzen diren karbonoaren isuriak.
- Bestalde, energia-sistema eraberritzean dagoen atzerapena, edo autokontsumoa eta etxean erabiltzeko energia berriztagarriak ez sustatzea, arlo horretan aukera galtzea izan da.
- ❖ **Energiaren faktura ordaintzera bideratutako gizarte-politikak.** Bestalde, gizarte-politikei esker hobetu egin da Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean jasotako laguntza eta prestazioen hartzaileak diren kolektibo ahulenen egoera. Izan ere, gizarte-bazterkeriari aurrea hartzeak eta bazterkeria hori ekiditeak eta arintzeak berariazko gastuak, ohikoak zein apartekoak, dakartzate. Gastu horiei erantzuteko, gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL) ematen dira. Diru-sarrerak

bermatzeko euskal sistemari esker bazterketa energetikoaren arriskua murriztu egin da, sistema-egituraren aldetik. Hala ere, behar sozialei buruzko inkestan azaldutako datuak ikusita, ez dago zalantzarik: gizarte-laguntzen erregimena egon arren, oraindik ere badaude pertsonak eta familiak, neguan energia-pobretasuna pairatzen dutenak. Arrazoiak aztertzeko, lehendabizi, kontuan hartu beharko litzateke kolektibo jakin batzuek ez dutela lortzen laguntzak jasotzeko eskubiderik (baldintzak betetzen ez dituztelako edo horretarako bideratutako diru-saila dagokion aurrekontu-ekitaldian agortu delako). Era berean, aztertu beharko litzateke fenomeno horren berriazko ezaugarria, hau da, energia-pobretasuna etxebizitzaren baldintza objektiboekin lotzeko joera; izan ere, honako baldintza hauek izan daitezke: isolamendu termikoaren maila, energia-sistema, energia-fakturaren kostua igotzea, ongizate-baldintza egokiak izateko.

1.3. Energia-pobretasunaren ondorioak

Fenomeno horrek izan ditzakeen ondorioek direla eta, beharrezkoa da energia-pobretasunaren arazoa argi zehaztea. Biztanleengan izan ditzakeen ondorioak ere ez dira pobrezia beste kategoriatzat hartzen dituzten bezalakoak. Energia-baliabideen urritasunak, tenperatura hotzekiko esposizioaren ondorioz, osasunaren narriadura larria eragin dezake, baita honako hauek ere: inpaktu soziala – kolektibo zaugarrien bazterketa, kontsumitzaile ahulenen babesgabetasuna; edo ingurumen-inpaktuak, besteak beste, iraunkortasun gutxiagoko baliabide energetikoak edo energia aurrezteko orduan eraginkortasun gutxiago duten eraikinak erabiltzea.

- **Osasunean eragindako kalteak.** Zenbait txostenek¹ aipatu dute etxean tenperatura desegokiak denbora luzez jasan beharrak osasunean izan dezakeen ondorioak aztertzeko garrantzia. Testuinguru honetan, azpimarratu da arnas-gaixotasun jakin batzuk edo gaixotasun kardiobaskularrak jasateko arrisku handiagoa izatea, edo beste gaitz batzuk larriagotzea (artritisa edo erreumatismoa). Halaber, neguan heriotza gehiago eragin dezakeela aipatu da. Azterlan horiek kolektibo ahulenetan jartzen dute arreta berezia, hain zuzen, adineko eta adingabeengan.
- **Energia-pobretasunaren eragina bizitzaren kalitatean eta ongizatean.** Dagoeneko aipatu dugunez, energia-pobretasunak gehiegizko gastu energetikoa dakar, familiako errenta kontuan hartuta, eta etxebizitzako gastua igotzen du, hori energia-sistemaren aldetik eraginkorra ez denean. Energiaren faktura ordaintzeko diru gehiago bideratu beharrak beste oinarriko ondasun eta zerbitzu batzuk –hala nola, janaria, garraioa edo hezkuntza– ordaintzeko ahalmena murriztea dakarkie kolektibo zaugarrienei.
- **Kontsumitzaile ahulenek jasaten dituzten ondorioak.** Batez ere kolektibo ahulenei eragiten dien ondorioa, energiaren faktura ordaindu ahal ez dutenean, energia-zerbitzuen (gas edo elektrizitatearen) hornidura etetea izaten da. Halakoetan, pertsona horiek zerbitzurik gabe geratzen dira, atzeratutako ordainketak, eta askotan, tasa bat berriro konektatzeagatik abonatu arte. Ondorio gaiztoa agertzen da orduan: familia zaugarrienen egoera latza are larriago bihurtzen da, gizarte-bazterketaren arriskua areagotuz.
- **Energia-pobretasunaren eragina ingurumenean.** Askotan, etxeetako energia-sistemen eraginkortasunik ezak gailuzkoak dakar, eta horrek, ekonomia- edo gizarte-ondorioak izateaz gain, ingurumenari ere kalte egiten dio. Etxeetako energia-kontsumoak berotegi-efektuko gasen isurien % 33 sortzen du. Etxebizitza-parkea birgaitzeko plan eta programek askotan talka egiten dute energia-pobretasunaren errealitatearekin. Etxeko

¹ Liddell, C eta Morris, C.; 2010 "Fuel poverty and human health: A review of recent evidence", Energy Policy, 28. zk.: hori bezalako azterlanak aipatu nahi ditugu. Honako txosten hauetan aipatu da: "Pobrezia energetikoa Gipuzkoan", 2013, Gipuzkoako Foru Aldundia; "Pobrezia energetikoa Espainian", 2014, Ingurumen Zientzien Elkarteak (ACA).

energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko helburuz hobekuntzak eta egokitzapenak egin beharra oztopo handia bihurtzen da pertsona edo familiei etxebizitza jakin batzuk esleitzeko orduan, daukaten errenta erabilgarria ez baita nahikoa birgaitze-lanen ondoriozko kostua ordaintzeko.

Labur esanda, Europako herrialde askotan energia-pobretasun izenarekin ezaguna den fenomeno errealitate bihurtu da. Duela gutxi arte pobrezia kontzeptu orokorragoan sartuta egon arren, berariazko erantzuna eskatzen du, egoerari aurre hartzeko eta ondorio jakin batzuk arintzeko ekintza-plan zehatz baten bitartez. Berariazko azterketa eta analisia egiteko beharra etxeetan energia-baliabide nahikorik ez egoteak edo baliabiderik ezak duen espezifikotasunetik sortzen da, gizarte, ekonomia eta ingurumen-ondorioen ugaritasuna aztertuta.

Fenomeno horren definizio estandarizatu baten zain, Europako Ekonomia eta Gizarte Kontseilua, bere TEN/516 2013 eta TEN/420 txostenetan, honako definizio hau iradoki du: *"etxebizitzan tenperatura-maila egokiak mantentzeko eta beste oinarritzko energia-zerbitzu batzuk arrazoizkoa den prezio baten truke lortzeko zailtasuna edo ezintasuna"*.

2. Herri agintarien jarduera-eremua energia-pobretasunaren fenomenoari aurre emateko

2.1. Europar Batasuna eta energia-pobretasunaren aurka borrokatzeko ekintza-planak

- ✚ Energia-pobretasunaren aurka borrokatzeko ekintza-planak.
- ✚ Bezero zaurgarriaren definizioa, pobrezia energetikoaren testuinguruan.
- ✚ Gizarte-politiken eta etxebizitzaren energia-eraginkortasuna hobetzeko neurrien bitartez murriztu eragindako pertsonen kopurua.
- ✚ Bezero zaurgarriek behar duten energiaren hornidura bermatzea. Garairik kritikoenetan energia-zerbitzuak mozteko debekua.

Energiarekin loturiko arazo hori aintzat hartzeko urrats garrantzitsua Europar Batasunak egin du, hain zuzen, energia-sektorea erregularizatzeko eta energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak bultzatzeko zenbait zuzentarau onartu ditu. Horietan, espresuki aipatzen da energia-pobretasunaren fenomeno.

❖ **Energia-pobretasunari eta zerbitzu energetikoen barne-merkatuari buruzko arauak.** Pobrezia energetikoaren kontrako borroka Europako Erkidegoko Zuzenbidean jaso da, hain zuzen, energia-merkatuko arau komunak erregulatzeko asmoz landu diren Europar Zuzentarueta: elektrizitatearen sektorekoan (2009/72/EE Zuzentaraua) eta gas naturalaren sektorekoan (2009/73/EE Zuzentaraua). Zuzentarau horiek ezartzen dituzte zerbitzu publikoaren betebeharrak batzuk, Europar Batasuneko estatu kide bakoitzean aplikatu behar direnak. Betebeharrak horiek energiaren arautzaileei ere dagozkie, izan ere, zerbitzu publiko eta unibertsalaren maila altua ziurtatzen laguntzeko ahalmena izan behar dute, bezero zaurgarriak babesteko direla bermatuz. Eginkizun horietako bat zerbitzu publikoa ematea da, eta horren bitartez, estatuak ezartzen diete enpresei kalitate oneko zerbitzu energetikoa (elektrizitatea eta gasa) arrazoizko prezioetan bermatzeko, eta kontsumitzaile partikularrak, bereziki, bezero zaurgarrienak babesteko betebeharra.

Zuzentaruaren 3. artikulua xedatzen duenez, estatu kideak behartuta daude kontsumitzaile zaurgarriak babesteko behar diren neurriak hartzera. Neurri horien artean, 'bezero zaurgarriaren' nozioa definitzea ageri da, eta horretarako, energia-pobretasunaren egoera aintzat hartu, eta ondorioz, besteak beste, nozio hori elektrizitatea aldi kritikoetan

mozteko debekuarekin lotu ahal izango da. Estatu kideek bestelako neurri espezifiko batzuk ere har ditzakete, adibidez, elektrizitatearen fakturak ordaintzearekin loturikoak, baita gizarte-segurantzako sistemaren barruko irtenbide orokorrago batzuk ere.

Horretarako, estatu kideek ekintza-plan egokiak garatu behar dituzte, energia-pobretasunari eraginkortasunez aurre egiteko eta egoera horretan dauden pertsonen kopurua murrizteko. Dena den, estatu horiek bermatu behar diete bezero zaurgarriei energia-hornidura. Horrela, ikuspuntu integratua aplikatu ahalko litzateke, adibidez, gizarte-politikaren esparruan, eta neurriek barne hartu ahalko lituzkete gizarte-politikak edo etxebizitzaren eraginkortasun energetikorako hobekuntzak.

Ekintza-plan horietan, zerbitzu publikoaren betebeharrei eta bezeroa babesteko beharrari erantzuteko zuzendutako neurriak barne hartu behar dira, bezeroak –eta bereziki, bezero ahulenak– egoki babestuta daudela bermatzeko.

Ilido honetan, aipa dezakegu Zuzentarauak behartzen dituela estatu kideak lege-, erregelamendu- eta administrazio-xedapenak 2011ko martxoaren 3a baino lehen hartzera. Epea transposizio zuzenik eman gabe igarota, betebeharra ez betetzeagatik estatuaren erantzukizuna eragotzi gabe, doktrinak kontuan izan behar ditu zuzentarauko xedapenen eragin zuzena, baldin eta xedapen horiek argiak, zuzenak, baldintzarik gabekoak, nahiko zehatzak eta partikularrek organo judizialetan aipatzeko modukoak badira, agintari publikoen edo interes publikoko zerbitzua emateaz arduratzen diren beste erakunde batzuen jarduerarik ezaren aurka egiteko².

Energia eraginkortasunez erabiltzeko beharrak ezartzen dituzten arauak. Aipatu beharreko bigarren araua, Europar Batasunak emandakoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/27/UE Zuzentaraua da, 2012ko urriaren 25ekoa, energia-eraginkortasunari buruzkoa. Zuzentarau horretan, honako gai hauek nabarmendu ditzakegu:

- ✚ Energia-eraginkortasunean inbertsioa egitea, energia-pobretasuna saihesteko.
- ✚ Energia eraginkortasunez erabiltzeko neurrien lehentasuna energia-pobretasunak jotako etxeetan.
- ✚ Energia-ikuskaritzak amaierako bezeroentzat.
- ✚ Kontsumitzaileei informazioa emateko eta haiek gaitzeko programak

- Europar Batasunean bertan, **esparru bateratua ezartzen du energia-eraginkortasuna sustatzeko**, eta ekintza zehatzak xedatzen ditu, orain arte erabili ez den aurrezteko ahalmen handia aprobetxatzeko. 2014ko ekainaren 5ean amaitu da arau horren transposizio-epea. Arauak ekonomia-jarduerako sektore guztiei eragiten die, energia-pobretasunarekin loturiko zenbait gai aipatzen dituelako.

- **Eraginkortasun energetikoan inbertsioak egitea, energia-pobretasuna saihesteko.** Zuzentarauaren arabera, energia-eraginkortasunean inbertsioak egiteak aukera ematen du ekonomia hazkuntza, enplegua eta berrikuntza bultzatzeko eta etxeetako energia-pobretasuna gutxitzeko. Inbertsioak sustatzeko, estatu kideek finantzaketa-mekanismoak bultza ditzatela proposatzen da; mekanismo horiei esker lortuko dira behar diren baliabideak, etxebizitza guztien energia-eraginkortasuna sustatzeko ekintzak gauzatzeko, hori guztia, *“energia-pobretasuna saihesteko”* helburu zehatzarekin.

² Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiaren jurisprudentziak (Europar Erkidegoetako Justizia Auzitegiak 2013ko abenduaren 12an emandako Epaia – Portugal-i buruzko auzia, c-425/12) agintari publikoaren egintzaren bitartez interes publikoko zerbitzu bat ematea aginduta duten eta agintariaren kontrolpean dauden enpresa pribatuen aurka zuzentarauak erabiltzeko aukera aipatzen du.

- **Pobrezia energetikoak jotako etxeetan energia eraginkortasunez erabiltzeko neurrien lehentasuna zehazten du.** Zehazki, arauak energia-eraginkortasunari buruzko betebeharrak sistema bat ezartzen du, estatu kide bakoitzak bete beharko duena. 7. artikulua aurreikusten duenez, energia-eraginkortasunari buruzko betebeharren sistemaren barruan, estatu kideek aukera izango dute *“ezarriko dituzten energia aurrezteko betebeharrak helburu sozialeko baldintzak sartzeko; adibidez, energia-eraginkortasuna lortzeko neurrien ehuneko bat energia-pobretasunak eragindako etxeetan edo etxebizitza sozialetan lehentasunez aplikatzea”*.
- **Energia-ikuskaritzak amaierako bezeroentzat proposatzen ditu.** Zuzentarauak eraikin bateko energia-konsumoaren profila aztertzeko prozedura bat aipatzen du. Prozeduraren bidez, kostu eraginkorrean energia aurrezteko aukerak zehaztuko dira eta horren berri emango da. Energia-ikuskaritzak bukaerako bezeroen kasuetan energia-aurrezpeneko eta hobekuntzako eremua kuantifikatzeko tresna ere badira. 8. artikulua aipatzen duenez, estatu kideek bermatuko dute bukaerako bezero guztiek energia-ikuskaritza independentea, kalitate onekoa eta egokitutako prezioan izateko aukera. Halaber, estatu kideek aholkularitza-programak landu beharko dituzte, etxeetan, energia-ikuskaritza horien onurei buruzko kontzientzia areagotzeko, eta ikuskariak prestatzeko programa bereziak bultzatuko dituzte.
- **Barne hartzen ditu kontsumitzaileei informazioa emateko eta haien gaitzeko programak.** Zuzentarauaren 12. artikulua barne hartzen duen aginduarekin bat, estatu bakoitzak bere estrategia ezarri beharko du, bezero txikiek, etxeak barne, energia modu eraginkorrean erabiltzea sustatu eta errazteko. Horretarako hainbat tresna eta neurri aipatzen ditu, ohiturak aldatzeko balio dutenak, hala nola, diru-laguntzak, zerga-pizgarriak edo informazioa teknologia berrien bidez jasotzeko aukera (kontagailu adimendunak).

Europar Batasunak emandako beste arau interesgarri bat, 2010eko maiatzaren 19ko 2010/31/UE Zuzentaraua da, eraikinen efizientzia energetikoari buruzkoa. Arau horrek ezartzen ditu eraginkortasun energetikoaren aldetiko gutxieneko baldintzak, eraikin berrietan eta dagoeneko eraikita dauden etxeen berrikuntza garrantzitsuetan bete beharrekoak. Halaber, energia-eraginkortasuna ziurtatzeko sistema ezartzeko betebeharrak xedatzen du. Neurri horiekin batera, Zuzentarauak aurreikusten du estatu kideek beste irtenbide batzuk ere erabiliko dituztela, eraikin berrien eta dagoeneko existitzen diren eraikinen energia-eraginkortasuna areagotzeko, eta horrela murriztuko dute egon daitekeen energia-pobretasuna.

2.2. Energia-pobretasuna Europan

Jarraian, labur-labur aipatuko dugu Europar Batasuneko beste estatu kide batzuen esperientzia. Izan ere, estatu horiek politika publiko desberdinak sustatu dituzte, energia-pobretasunaren ondorioak arintzen saiatzeko.

Erresuma Batuak, energia-pobretasunaren aurkako borrokaren aitzindariak, bere arautegia landu du horretarako. 2000. urtean, *Warm Homes and Energy Conservation Act* onartu zuen, administrazioari zuzendutako agindua *–fuel poverty* murrizteko– ezartzen duena. Ekintza horren estrategiak jasotzen ditu, hala nola, neguan, eta kolektibo jakin batzuei emateko diru-laguntzak, argiaren fakturretan deskontuak izateko programak, etxeen energia-eraginkortasuna lortzeko neurriak, eta aholkularitza teknikoko zerbitzuak kontsumitzaileentzat, energia-gastuak murrizteko eta eraginkortasuna hobetzeko.

Belgika, bestalde, pobrezia aurre egiteko estatuko plan bat onartu du, eta bertan, espresuki aipatu du energia erabiltzeko eskubidea bermatzeko helburua. Aurreikusitako

neurriak honako hauek dira, besteak beste: tarifa murriztua ezartzea bezero babestuentzat (eskualde bakoitzak autonomiaz zehazten ditu bezero horiek); eta energia-kontsumoa potentzia-mugatzailen eta aurrez ordaindutako kontagailuen bidez murrizteko neurriak.

Azenik, Herbehereek arau-esparru bat dute gai horretarako, eta horren arabera, 2011tik, neguan, hain zuzen, urriaren 1etik apirilaren 1era, debekatuta dago energia-hornidura etetea. Halaber, herrialde horrek tradizio luzea du eraikitzen diren etxeetan energia-eraginkortasuna sustatzean. Aipatzekoak dira energiaren inguruko aholkularitza-programa eta energia-berrikuntzarako laguntzak.

2.3. Energia-pobretasuna Espainian

Energia-pobretasunaren fenomenoari aurre egiteko eta hura murrizteko plan bat ezartzeko beharra indarreko betebeharrak bihurtu da gure ordenamendu juridikoan, eta, aurretik esan bezala, arau-testuinguru europarrean, Europako Erkidegoko zuzenbidean jasota geratu da.

Egiazta dezakegu egun arte Espainian Europar Batasuneko xedapen batzuen transposizio partziala baino ez dela egin, hain zuzen, gai hura aipatzen duten energia-sektoreari buruzko xedapenak transposizioz jaso dira.

- **Kontsumitzaile zaugarria eta gizarte-bonua.** Sektorre Elektroari buruzko abenduren 26ko 24/2013 Legearen 45. artikulua kontsumitzaile zaugarriaren figura ezarri du. Terminor horrekin izendatu ditu Gobernuak araudi bidez ezarritako gizarte, kontsumo eta erosteko ahalmenari loturiko ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten pertsonak, beraien etxeetan elektrizitatea kontsumitzen dutenak.

Kontsumitzaile horien behar bezalako babesa bermatzeko neurrien artean, badago gizarte-bonua jasotzeko eskubidea, zerbitzu publikoaren betebeharrak gisa.

Gaur egun, ohiko etxebizitzan bizi diren eta ondorengo baldintzetatik bat betetzen duten kontsumitzaileek dute gizarte-bonua jasotzeko eskubidea:

- Ohiko etxebizitzan, 3 kW baino gutxiagoko potentzia kontratatuta izatea.
- 60 urte edo gehiago izatea eta une bakoitzean aipatutako pentsio-motentzat indarrean dagoen gutxieneko zenbatekoa jasotzen duen pentsioduna izatea.
- Familia ugaria izatea.
- Kide guztiak langabezia dituen familia-unitate bateko parte izatea.

Gizarte-bonua kontsumitzaile txikiarentzako borondatezko prezioaren gainean % 25eko deskontua da, dagokion azken baliabideko tarifa aplikatu ondoren. Azken baliabideko tarifak berdinak dira estatu osoan, eta erreferentziako merkaturatzaileek aplikatu behar dituzte.

- **Eraikinak eraberritzeko politikak eta energia-pobretasunaren aurkako borroka.** Bestalde, indarrean dagoen [urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua, Lurzoruari eta Hiri Zaharberritzeari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena](#), gai hori bere xedeetan esanbidez jasotzen duen arau bakarra da. Eraikitako etxebizitza-parkearen iraunkortasuna sustatzea du helburu, gure araudia Europako araudira egokituz, batez ere, energia aurrezte, eraginkortasunez erabiltzea eta energia-pobretasunaren aurka borrokatzea aintzat hartuta. 3. artikulua jasotzen du botere publikoek duten eginkizuna politika publikoak garatzeko. Politika horien helburua hau da: *“energia berriztagarriei lehentasuna ematea energia-iturri fosilen aldean, eta energia-pobretasunari kontra egitea, energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurrien bidez”*. Aurreikusitako

neurrien artean badago hirigintza-arloan esku hartzeko ekimena, eraikinetan egon daitezkeen energia-pobretasunaren egoera larriei aurre egiteko.

Horretaz gain, lege horrek arautzen du eraikinen ebaluazio txostena, eraikitako etxebizitzaren kalitatea eta iraunkortasuna ziurtatzeko balio duen tresna, autonomia erkidego batek arautu duen eraikinen ikuskapen teknikoarekin batera erabiltzekoa. Txostenak jaso behar ditu energia-eraginkortasunari buruzko atal bat, baita eraikineko eraginkortasun energetikoaren ziurtagiria ere. Ziurtagirian, ondorio horietarako eraikinari esleitu zaion kalifikazioaz gain (A letratik G letrara), egin daitezkeen energia-hobekuntzei buruzko gomendio batzuk ere jasoko dira. Azken horien kostua/irabazi arteko erlazioa aztertuko da, eta ondorio energetikoen zein bideragarritasunaren arabera sailkatuko dira, ikuspuntu tekniko, ekonomiko eta funtzionala aintzat hartuta. Araudiak eskatzen duenez, etxebizitza salgai edo alokairuan jartzen denean ere erantsi behar da ziurtagiria. Eraikuntzen eraginkortasun energetikoa ziurtatzeko oinarrizko prozedura onartzen duen apirilaren 5eko 235/2013 Errege Dekretuarekin bat, gutxienezko edukiak barne hartu behar du energia-eraginkortasunaren maila hobetzeari buruzko agiria, etxebizitzaren jabeari edo errentariari zuzendutako gomendioak jasotzen dituena. Halaber, energia-ikuskaritzari zein pizgarri finantzarioei buruzko informazioa sartu ahal izango da.

- **Kataluniako autonomia erkidegoaren estrategia energia-pobretasunaren aurka.** Espainiako autonomia erkidego batzuek –adibidez, Kataluniak– abian jarri dituzte ekimenak batzuk energia-pobretasunaren aurka egiteko berariazko marko juridikoa sustatze aldera.

Autonomia erkidego horrek kontsumitzaileen eskubideei loturiko hainbat neurri hartu ditu. Horrela, abenduaren 29ko 20/2014 Legeak, uztailaren 20ko 22/2010 Legea, Kataluniako Kontsumo-kodearena aldatzen duenak, irtenbide batzuk ezarri ditu, aldi kritikoetan, pertsona horiek hornidura-mozketak jasan behar ez izateko.

Konstituzio Auzitegiak –2015eko urriaren 6ko Erabakiaren bidez, onartu du izapidetzeko abenduaren 29ko 20/2014 Legearen aurka jarritako konstituzionaltasun-ezari buruzko errekurtsoa, eta aplikatu gabe utzi ditu energia-pobretasuna eta hornidura mozteko kasuan esku-hartze sozialeko prozedura definitzen dituzten arauak.

Etxebizitzaren eta pobrezia energetikoaren eremuko larrialdiari aurre egiteko presako neurriei buruzko 24/2015 Legeak, uztailaren 29koak, lotu dio Kontsumo-kodeak hasitako bideari. 6. artikuluekin bat, etxebizitza-bazterketaren arrisku-egoeran dauden pertsona eta familia-unitateek badute eskubidea oinarrizko hornidurak, hala nola, edateko ura, gasa eta elektrizitatea izateko. Neurrien artean badago protokolo bat, bazterketa-egoerak antzematen direnean. Gizarte-zerbitzuei jakinarazi behar zaie protokoloa, eragindako familiek baliabide ekonomikorik ez dutenez, fakturak ordaindu gabe daudenean, hornidura-mozketak saihesteko behar diren laguntzak eman ditzala. Bestalde, administrazioen eta edateko uraren, gasaren eta elektrizitatearen horniduraz arduratzen diren konpainien arteko hitzarmenak bultzatzen dira, etxebizitza-bazterketaren arriskuan dauden pertsonen laguntzak emateko.

2.4. Euskadi eta energia-pobretasuna

Gure autonomia erkidegoan, energia-pobretasunaren fenomenoak nahiko ezezaguna izan da duela urte gutxi arte, oraintsu arte adierazle hori behar bezala karakterizatu gabe egon baita.

Gutxieneko diru-sarrerak bermatzeko daukagun sistema finkatuak eta gizarte-zerbitzuek izan dituzten eragin onuragarriak –zalantzarik gabe– bilatu behar ditugu fenomeno ezezaguna egoteko arrazoiak, horiek egiturazko erantzuna eman baitiote. Beste leku batzuetan baino baldintza klimatologiko hobek izatea ere arrazoi izan daiteke.

Hala ere, azken urteotan, hainbat gizarte-talde eta erakundek gaiaren inguruko kontzientziazioa sustatu dutenez, energia-pobretasuna gero eta garrantzitsuagoa da, Euskadiko politika publikoko azterketa eta esku-hartzearen markoan. Era berean, gai hau arautzen duen Europar Batasunaren araudiak fenomeno horri dagokion esku-hartzea energia-zerbitzuak erabiltzen dituen pertsonen ikuspuntutik edo eraikinak eraberritzeko eta horien energia-eraginkortasuna hobetzeko politika publikoen ikuspuntutik bideratu du.

Hala ere, egun arte, euskal herri-administrazioak ez dira gai izan berriazko estrategia orokor bat garatzeko, energia-pobretasunari aurre egiteko.

Hala eta guztiz ere, esku-hartze publikoaren eremuan, aipa ditzakegu hainbat egitura-neurri, fenomeno arintzeko edo saihesteko hartu direnak. Gainera, beste irtenbide berriago batzuk erabili dira, hain zuzen ere, Euskadiko energia-pobretasunari erantzun ahal izateko.

- **Gizarte-politikan, egiturari buruzko neurriak energia-pobretasuna arintzeko**

Kasu gehienetan azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legean jasotako laguntza eta prestazioen hartzaileak diren kolektibo ahulenen egoera hobetu egin da gizarte-politikei esker. Lege horrek jasotzen dituen prestazio ekonomikoen artean, badaude udalek kudeatzen dituzten diru-laguntzak, hain zuzen, gizarte-larrialdietarako laguntzak (GLL). Prestazio horiek gizarte-bazterkeriari aurre hartzeak eta bazterkeria hori ekiditeak eta arintzeak sortzen dituen gastuei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten pertsonen zuzenduta daude. Berriazko gastu horiei, ohiko zein apartekoei erantzuteko ematen dira gizarte-larrialdietarako laguntzak. Laguntza horiek barne hartzen dituzte, beste kontzeptu batzuekin batera, energia-hornidura ordaintzeak eratorritako gastuak eta ez ordaintzeagatik hornidura moztea saihesteko gastuak.

Aipatu behar da gizarte-larrialdietarako laguntzak ez direla aldizkakoak eta kontzeptu zehatz batzuetarako urtero finkatzen duen aurrekontua da horien muga. 2015. urtean, hain zuzen, 2015eko otsailaren 25ean, onartu dira gehieneko zenbatekoak, berriazko gastu bakoitzeko. Horretan sartzen dira energia-gastuak, etxebizitzako oinarriko instalazioen gastuak, lerro zuriko etxetresna elektrikoak eta zorpetze gastuak, kontsumitzaile zaurgarrien energia-premiei erantzun ahal dietenak.

- **Egiturazko neurriak, dagoeneko eraikita dauden eraikinak biziberritzeko politiken bidez energia-pobretasunari aurre hartzeko**

Eraikuntzan esku-hartzea arautzen duten printzipioei dagokienez, Etxebizitzari buruzko ekainaren 16ko 3/2015 Legearen 40. artikulua esanbidez aipatu du energia-eraginkortasunari eta energia- eta baliabide-kontsumoari dagozkien betekizunak eta baldintzak betetzea aintzat hartzeko beharra.

Lege beraren 52. artikulua eusten dio eraikina unean-unean erregelamenduz eskatzen diren kalitate-baldintzei egokitzen zaiela ikuskapen teknikoan bitartez frogatzeko betebeharrari. Arau horren zioen azalpenean aipatzen da dagoeneko eraikita dagoen parkearen % 70ek baino gehiagok 30 urtetik gorako antzintasuna duela eta eraikinak

lehenengo araudi termikoa baino lehenagokoak direla eta, beraz, oso urruti daudela gaur egun energia-eraginkortasunerako nahi diren eskakizunak betetzetik.

Hori dela eta, eraikinen ikuskapen tekniko sistema tresna erabilgarria da administrazioaren esku-hartzearen planifikazio eta programazioa lortzeko. Horretarako, etxebizitza-parkearen eta dagoeneko eraikita dauden eraikinen energia-eraginkortasunaren kontrola beharrezkoa da. Eusko Jaurlaritzak gai hori arautu du, Euskal Autonomia Erkidegoko eraikinen ikuskapen tekniko arautzen duen azaroaren 21eko 241/2012 Dekretuaren bidez (80/2014 Dekretuak aldatuta). Txosten horren eta ondorengo irizpenaren helburua eraikinaren narriadura-egoera ezagutzea da, baita kalteak larritasunaren arabera ebaluatzea eta esku hartzeko plana lantzea ere. Eraikinen ikuskapen teknikoak jaso behar du eraikinaren energia-eraginkortasunaren ziurtagiria, indarrean dagoen araudiak ezarritako edukia duena. Ziurtagiri hori araudian ezarri den prozeduraren bidez eman behar da. Txostena aintzat hartuta, udal zerbitzu teknikoek esku-hartzeak beharrezkotasunaren arabera sailkatu behar dituzte, eta beharrezkoenak lehenetsi. Edozein kasutan, gauzatze aginduetara jo behar da, eraikinen ikuskapen tekniko egiteko betebeharra edo antzemandako arriskuak kentzeko lanak egiteko eginkizuna bete ezean. Azken horiek honako gradu hauetako bat izan dezakete: berehalako esku-hartzea, oso premiazkoa, premiazkoa.

Aipatu behar da eraikinen ikuskapen tekniko eraikina birgaitzeko diru-laguntzak eskatu dituzten titularrei eskatzen zaiela. Hala ere, arau horiek betetzea 2017ko ekainaren 28ra arte ez da eskatuko, bizitegi-erabilera duten eta 50 urte baino zaharragoak diren eraikinen kasuetan.

Azken urteotan onartu diren etxebizitzaren inguruko planek aintzat hartu dute eraikinak birgaitzeko programetan energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak sartzeko beharra. Eraikuntzak birgaitzeko politikak barne hartu dituzte energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko baldintzak hobetzeko diru-laguntzak. Diru-laguntza eraikinen jabe guztientzat eskuragarri daude, eta, programa batzuetan eskatzailearen errenta kontuan hartzen bada ere, printzipioz, ez dira kolektibo ahulenei zuzenduta.

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak onartu duen [etxebizitza eta eraikinen birgaitze eraginkorraren alorreko Renove programak](#) barne hartzen ditu jabeen erkidegoei zuzendutako diru-laguntzak. Lanei esker eraikinaren energia-portaera hobetu behar da eta eraberritzearen ondoren, gutxienez C energia-ziurtagiria lortu behar da. Horretarako, jarduketa pasiboak burutuko dira eraikinen inguratzailean, berokuntzarako urteko energia-eskaria gutxienez % 30 murriztuz. Halaber, instalazioen eraginkortasunaren bidez edo iturri berriztaezinetatik eratorritako energia metatuz kontsumoa % 30 murriztuko duten jarduketa pasiboak egingo dira. Era berean, programa horrek barne hartzen ditu energia-monitorizaziorako laguntzak, eraikinaren energia-efizientziaren hobekuntza egiaztatzea eta kuantifikatzea ahalbidetzen duena. Bestalde, Energiaren Euskal Erakundeak badu laguntza-programa, ohiko okupazioko etxebizitzetan etxetresna elektrikoak edo leihoak ordezkatzeko, energia aurrezteko eta eraginkortasun energetikoa hobetze aldera. Laguntza horiek unibertsalak dira, izan ere, ez da aintzat hartzen eskatzailearen egoera, eta badago aurrekontu-muga, hortaz, eskaera egiteko unearan arabera esleitzen dira.

- **Egiturazko neurriak, energiaren kontsumitzaileei informazioa eta aholkuak emateko politiken bidez energia-pobretasunari aurrea hartzeko**

Neurri horiek zerbitzu energetikoak erabiltzen dituzten pertsonen elektrizitate- eta gas-sektoreari buruzko araudiak jasotzen dituen eskubide eta betebeharren inguruko informazioa ematea dute helburu. Arlo honi dagokionez, Eusko Jaurlaritzak, Kontsumobide

erakundearen bidez, elektrizitate- eta gas-horniduraren baldintzei buruzko informazioa ematen die erabiltzaileei.

Oro har, Euskadin, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutuari buruzko abenduaren 22ko 6/2003 Legeak arautzen ditu kontsumitzaile eta erabiltzaileei dagozkien eskubideak. Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen oinarrizko eskubideak dira beren bidezko interes ekonomikoak eta sozialak babestea zein beren osasunerako eta segurtasunerako kaltegarriak izan daitezkeen arriskuen aurrean babes osoa ematea ere. Kontsumo-arloan informazioa eta heziketa ematea ere eskubide horietako bat da.

5. artikulua eskubideak lehenetsuz babesteko egoerak zehazten ditu: “banaka zein talde gisa desabantaila, mendekotasun edo babesgabetasun egoeran egonik” babes berezia behar duten gizataldeei eragiten dietenean.

7. artikulua jasotzen du kontsumitzaileen legezko ekonomia- eta gizarte-interesen babesari buruzko edukia. Euskadiko herri administrazioek behar diren ekintzak bultzatuko dituzte kontsumitzaileen interesak kaltetzen dituzten joakerak saihesteko. Elektrizitate eta gasaren hornidurari dagokionez, g) idatz-zatian jasota dago “Etengabe egitekoak diren zerbitzu publikoen hornidura etetea debekatzea, kontsumitzaileak edo erabiltzaileak horren gaineko jakinarazpen fede-mailerik jaso ez badu –jakinarazpen *horretan, gainera, behar besteko epea eman behar zaio hornidura etetearen arrazoia zuzendu ahal izateko– eta, hala behar denean, aurretik behar diren administrazio-baimenak eta epailearen baimenak eman ez badira”.*

- **Beste neurri zuzen batzuk, energia-pobretasunaren ondorioak arintzeko**

Bai Eusko Legebiltzarrak, bai Eusko Jaurlaritzak ekimen eta baliabide ekonomikoak adostu dituzte, hain zuzen, fenomeno hori arintzen saiatzeko.

[31/2014 ez legezko proposamena, energia-pobretasuna errotik kentzeko](#). Proposamen horren bidez, Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari bere eskumen-eremuan neurriak ezartzea eskatu zion, kolektibo ahulenei argi, ur edo gasaren hornidura etetea eragozteko, bereziki, eskari handieneko sasoietan.

[38/2015 ez legezko proposamena, gizarte-larrialdietarako laguntzarik jaso ezean, energia-pobretasunaren egoerei erantzuteko aurrekontu-saila gaitzeari buruz](#). Bigaren proposamen horren bidez, Eusko Legebiltzarrak hirugarren sektoreko erakundeekiko lankidetzahitzarmen bat sinatzea eskatu dio Eusko Jaurlaritzari, irizpideak ezartzeko eta energia-pobretasuna arintzeko aurrekontuan sartutako zenbatekoak gizarte-larrialdietarako laguntzak jasotzeko eskakizunak betetzen ez duten familien artean banatzeko. Halaber, eskatu dio Eusko Jaurlaritzari enpresa energetikoekin hitz egin dezala, familiek pilotutako zorra berriz ere negoziatzeko aukera lortzeko eta hornidura inoiz ere ez eteteko ez ordaintzeagatik, bat-bateko arrazoi ekonomikoak baldin badaude. Azkenik, Eusko Legebiltzarrak eskatu dio Eusko Jaurlaritzari energia-pobretasuna jasaten duten etxeetan energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko neurriak ezar ditzala, bertan bizi diren pertsonen oinarrizko premiak –etxebizitzari loturikoak– betetzea bermatzeko.

Eusko Jaurlaritzak, bere aldetik, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailaren bitartez, 2015eko urriaren 6an, Euskal Herriko Gurutze Gorriarekiko Lankidetzahitzarmena onartu du. Horren bidez, 200.000 euroko diru-laguntza eman zaio erakunde horri, energia-pobretasunari buruzko egitasmo bat, eta etxebizitza-arloko krisiaren ondorioz ahultasun-egoeran edo gizarte-bazterketaren arriskuan dauden familientzako laguntza bultzatzeko. Zehazki, familia horien berehalako premiak aztertzeko konpromisoa hartu da, eta aukera emango zaie energia-horniduren gastuei aurre egiteko laguntza jasotzeko. Halaber,

kudeaketak egiteko lagunduko zaie eta etxeko gastuak kudeatzeko eta aurrezteko tailerretan gaitasun berriak ikasteko aukera emango zaie.

Fenomenoaren inguruko hausnarketa egiteko ekarpenak nabarmendu ditzakegu, hala nola, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2013ko irailean aurkeztutako "Pobrezia energetikoa Gipuzkoan" izeneko txostena, duela gutxi eguneratua. Foru aldundi horrek 2014an ezarri ditu hainbat laguntza tokiko energia aurrezteko eta eraginkortasunez erabiltzeko. Udalei zuzendutako laguntzak dira, eta energia-pobretasunari aurrea egiteko eta horren aurka borrokatzeko udal azterlan eta planak egiteko laguntzak barnean daude.

Udal batzuek beraien gizarte-politiketan sartu dute gai hori, hain zuzen, eraikinak birgaitzeko edo ekonomia sustatzeko programetan.

Donostiako Udalak, Sustapena udal elkartearen bitartez, abian jarri du Smartkalea egitasmoa, ingurumen-arloko iraunkortasuna, energia-eraginkortasuna, kale Nagusiaren inguruan herritarren parte-hartzea sustatzea helburu duena. Egitasmo horren elementu batek bertako familia batzuen energia eta ur-kontsumoak monitorizatzea proposatzen du. Ondorioz, energia-ikuskaritza baten bidez, nabarmen murriztu egingo dute haien faktura.

Bilboko Udalak energia-hornitzailea den enpresa batekin hitzarmena sinatu du 2015eko urrian; horri esker, enpresak ahultasun-egoeran dauden bezeroak babesteko konpromisoa hartu du. Hitzarmenaren helburua gizarte-ekintza sailaren eta enpresaren arteko koordinazio-mekanismoak ezartzea da, faktura ez ordaintzeagatik hornidura eteteko kasuak saihesteko. Neurri hori Bilbon erroldatuta dauden eta gizarte-larrialdietarako laguntza baten onuradunak izan daitezkeen pertsonentzat da, baldin eta legez ezarritako baldintzak betetzen badira eta kreditu egokia eta nahikoa baldin badago. Era berean, konpainiak energia-eraginkortasunaren arloko aholkuak eta informazioa emango dizkie laguntza horien hartzaileei. Duela gutxi, Gasteizko Udalak antzeko hitzarmen bat sinatu du.

3. Energia-pobretasunaren aurka borrokatzeko ekintza-planetan aintzat hartu beharreko printzipioak.

Herri agintariei energia-pobretasunari aurrea egiteko eta horren ondorioak arintzeko estrategia bat eskatzea, Europar Batasunaren araudiak botere publikoei ezarritako eginkizuna da. Estrategia horrek jaso behar ditu printzipio batzuk, baita zerbitzu publikoaren betebeharrak ere. Printzipio eta betebeharrak egun arte gai hori jorratzen zuten arauetatik sortzen dira. Jarraian zerrendatuko ditugu:

- **Energia-pobretasunaren aurkako borrokaren berezitasunaren printzipioa.** Energia-pobretasuna berriazko fenomeno da, pobrezia orokorretik bereizten dena. Azterketa, ebaluazioa eta jarduketa-programa berezia eta zehatza eskatzen du, gure gizartearen ongizaterako energiak duen garrantzia dela eta.
- **Kolektibo zaurgarrien aldeko esku-hartzearen printzipioa.** Energia-pobretasuna baliabide energetikoen urritasuna da, eta baliabide ekonomiko gutxi duten pertsonen eragiten die bereziki. Energiaren aldetik eraginkortasun txikiagoa edo energia aurrezteko gaitasun txikiagoa duten eraikinetan bizi diren pertsonen eragin diezaieke. Europar Batasunaren araudiak fenomenoaren jasateko arrisku handiagoa duten kolektibo ahulak definitzea eskatzen du.

- **Herritarrentzat funtsezkoak edo nahitaezkoak diren energia-hornidurak izateko bermearen printzipioa.** Energia ezinbesteko ondasuna da eta zerikusituzena du pertsonaren duintasunerako eskubidearekin eta baldintza egokiak dituen etxebizitzarako eskubidearekin. Hori dela eta, botere publikoek zehaztu behar dute energia-horniduraren (argindarra eta gasa) gutxieneko bolumena. Zerbitzu publikoaren betebeharra denez, bai agintariek bai enpresa hornitzaileek behar bezala bermatu beharko dute bolumen hori.
- **Energia-pobretasunagatik gizarte-bazterketa saihesteko printzipioa.** Energia-urritasunaren aurkako estrategia egokiak fenomeno saihestea izan behar du oinarri. Hori dela eta, neurriek saihestu behar dituzte energiaren faktura ordaintzeari aurre egiteko ezintasunaren ondorioak, energia-gastua murriztuz.
- **Energia aurrezteko eta kontsumoa murrizteko printzipioa.** Hartu beharreko neurriek energia aurrezteko eta etxebizitzaren eraginkortasuna lortzea, eta ez fakturak *a posteriori* ordaintzeko diru-laguntza zuzenak ematea izan behar dute helburu.
- **Energia aurrezteko neurriei buruzko informazioaren printzipioa.** Herri agintariek nahikoa baliabide jarri behar dituzte honako gai hauei buruzko informazio-sistema egokia bermatzeko: benetako kontsumoa; bezero bakoitzari gehien komeni zaion potentzia kontratatzeko modalitatea; energia-kontsumoa murrizteko neurri egokiak, hala nola, ohiturak aldatzea edo elementu eta etxetresna elektriko ez eraginkorrek ordezkatzeko. Fenomenoari aurrea egiteko, kontsumoa monitorizatzean oinarritutako eta enpresa independenteek egindako energia-ikuskaritzek dute lehentasuna.
- **Neurrien iraunkortasunaren printzipioa.** Hartu beharreko neurriek aintzat hartu behar dute energia ekoizteak eta kontsumitzeak ingurumenen duen inpaktua. Ildo horretan, ingurumenen eragin gutxiagoko neurriak hartu behar dira kontuan, eta horiei eman beharko zaie lehentasuna.
- **Esku-hartze publikoaren printzipioa.** Euskal herri administrazioek badute eskumena dagokien jarduketaren eremuan (energia, etxebizitza eta kontsumoa) energia-pobretasunaren aurkako estrategia zehaztu eta sustatzeko. Administrazioek modu koordinatuan aritu behar dute eta administrazio-maila desberdinen arteko elkarlanean ibili, erabakitako neurriak zuzen planifikatu eta gauzatzeko aldera.
- **Gizarte-adostasunaren printzipioa.** Euskal herri-administrazioek adostu behar dituzte euren jardun-proposamenak parte hartzen duten beste eragile batzuekin, batez ere, enpresa hornitzaileekin, energia-kooperatibekin edo ekimen berritzaile eta esperimentalak garatzen dituzten entitateekin, prestazio berriak eta energia-arloan zaugarriak diren kolektiboari arreta emateko zerbitzuak abian jartzeko.

Herritarren partaidetzaren printzipioa. Energia-pobretasunaren arloan, interesatuei entzute aktiboa ere garrantzi handikoa da, bereziki, pertsona horiek kontsumitzaileen elkarteetako, energia berriztagarriak sortu eta kontsumitzeko kooperatibetako edo eztabaida eta errealitate hori ezagutzea bultzatu duten beste herritar-kolektibo batzuetako kideak badira.

4. Energia-pobretasunaren aurkako jarduera-proposamenak eta gomendioak

Neurri publikoak edo gizarte-bazterketa mota horren kontra egiteko hitzartutakoak, batez ere, hiru eremu desberdinetatik har daitezke.

4.1. Energia-sektorearen eta kontsumitzaile zaugarrienen arauketa-eremua

4.1.1. Euskadiko energia-pobretasunaren aurka borrokatzeko plana finkatzea

Lehen eremu horretan, energia-pobretasunaren aurkako euskal estrategia finkatzeko beharrari heltzen zaio. Estrategia horrek fenomenoaren azterketa osoa egin behar du eta egoki zehaztu, horri aurrea egin ahal izateko eta bere ondorioak arintzeko helburuz.

Komenigarria da etxeetan baldintza termiko egokiak mantentzeko arazoak dituzten pertsonen benetako diagnostiko bat lantzea, eta energia-pobretasuna jasateko arriskuan dauden pertsonen kopurua zehaztea. Horretarako, interesgarria izan daiteke energia-pobretasunaren adierazleak osasun, kontsumo, etxebizitza, energia eta gizarteratzearen inguruko politika publikoak planifikatzeko tresna-multzoan sartzea.

Fenomenoa aztertu ondoren, ezinbestekoa da administrazioaren eta interesa duten eragileen artean adostutako energia-pobretasunaren aurkako ekintza-plan bat sortzea; horretan jaso behar dira kontsumitzaileak babesekeo politikak eta gizarte- eta etxebizitza-eremuko neurriak, fenomeno horri dagokionez.

4.1.2. Energia-pobretasuna jasateko zorian dagoen kontsumitzaile zaugarriaren definizioa

Eusko Jaurlaritzak, energia eta kontsumoari buruzko bere eskumenak erabiliz, legez xedapena onartu behar du, zaugarritzat eta energia-pobretasuna jasan dezaketen pertsonatzat jotzeko baldintzak betetzen dituzten pertsona edo etheen definizioa ezartzeko.

4.2. Energiaren kontsumitzaileik zaugarriena babesteko neurriak.

4.2.1. Bigarrenik, kolektibo ahulenei energia-hornidura bermatu behar zaie

Energia-sektorean eskumena duen administrazioak, arlo honetan estatuak izan ditzakeen eskumenak eragotzi gabe, gutxieneko zerbitzu energetikoa bermatzeko neurriak ezarri beharko lituzke.

Horretarako, arauzko neurriak edo administrazio-neurri egokiak onartu beharko dira, argindar edo gasaren hornidurako gutxieneko bolumena zehazteko. Bolumen hori mozketarik gabe etxebizitza guztietara helaraziko dela bermatu behar da. Argindarraren zerbitzuaren kasuan, kontagailu adimenduetan erabilitako teknologia berriek horniduraren gutxieneko potentzia –2 MW-koa– murriztu edo mantentzeko aukera ematen dute, faktura ordaindu ez bada ere.

Euskal herri agintariak –Europar Batasuneko zuzentarauetan jasotako xedapenak aplikatuz eta dagokien eskumen-eremuan, kontsumo, etxebizitza eta energiaren arloan, legezko mekanismoak ezarri behar dituzte, aldi kritikoetan –nolanahi ere, neguko hilabeteetan (abendua-urtarrila-otsaila-martxoa)– energiaren hornidura bermatzeko.

4.2.2. Energiaren kontsumitzaile zaugarrienen ikuspuntutik egokia den informazioa eskuratzeko eskubidea

Kontsumo-arloan eskumena duen administrazioak energiaren kontsumitzaile zaugarriak behar duen informazio guztia eman behar dio, energia izateko zerbitzu publikoaren inguruan. Informazio horretan, energiaren tarifak argitasun eta gardentasunez ikusteko eskubidea hartu behar da kontuan. Bereziki, informazioan azpimarratu behar da etxe bakoitzaren kasuan zein den potentzia kontratatzeko modalitatetik egokiena.

Araudiak aurreikusi duen tarifa murriztua izateko eskubidearen berri eman behar da. Deskontu hori gizarte-bonuaren edo bestelako laguntzen bidez egiten da, eta azken horiek, autonomiaren edo udalaren mailan eskura daitezke.

Baliabideak jarri behar dira bezero zaurgarrienei une kritikoetan hornidura ziurtatzeko bermea jakinarazteko. Kasu honetan, bezero horien eskura jarri behar da energia-zerbitzuetan eskubide horretaz baliatzeko erabil ditzaketen legezko mekanismoei buruzko informazioa.

Gainera, gidak prestatu behar dira, kontsumitzaile ahulenek energia aurrezte eta kontsumoa murriztea sustatzeko.

4.3. Energiaren pobretasunak eragindako etxebizitzetan eta eraikinetan energia-eraginkortasuna hobetzeko neurriak

4.3.1. Azken eremu horretan, bezero zaurgarrien kasuetan, energia-ikuskaritzak burutzea da helburu

Energia-eraginkortasunari buruzko Europar Batasunaren araudian jasotako energia-ikuskaritzako programak eta energia-aholkularitzaren beste mekanismo batzuk, bultzatu behar dituzte eskumena duten administrazioek. Energia-ikuskaritzak tresna baliagarriak dira, kontsumitzailearen ohiturak eta kontsumoaren bilakaera ezagutzeko eta egokitzeko, energia-tarifa komenigarriagoak aukeratzeko eta kontsumoa murrizteko neurriak sustatzeko, birgaitze-lanen bidez edo etxebizitzako elementuak ordezkatzuz.

Energia-arloan eskumena duen administrazioak bukaerako bezeroei zuzendutako energia-ikuskaritzaren gutxieneko edukia eta irizpideak zehaztu beharko lituzke, baita ikuskaritzak egiteko gaitu diren enpresek bete beharreko baldintza teknikoak finkatu ere.

Hirigintza eta etxebizitzaren arloan eskumena duen administrazioak aztertu behar du energia-ikuskaritzak dokumentazioan, eta Etxebizitzari buruzko 2/2015 Legeak aurreikusitako eraikinen ikuskaritza teknikoa egiteko eskakizunetan jasotzea.

4.3.2. Babes ofizialeko etxebizitza-parkearen energia-eraginkortasunaren azterketa

Herri-administrazioek babes ofizialeko etxebizitzaren berriazko ikuskaritzak egin behar dituzte, horien energia-eraginkortasuna hobetzeko eta esleipendunak energia-pobretasuna jasateko arriskuaren kontra babesteko.

4.3.3. Kolektibo ahulenei zuzendutako energia-berrikuntzarako laguntzak

Etxebizitzaren arloan eskumena duen administrazioak laguntza zehatz batzuk finkatu behar ditu, energia-pobretasuna jasateko arriskuan dauden pertsonen etxebizitzetako eta eraikinetako energia-eraginkortasuna hobetzeko.

Energia-eraginkortasuna lortzeko laguntzak eraikuntza-elementuekin (leihoak) lotutakoak edo etxetresna elektrikoak ordezkatzekoak emateko orduan, energia-pobretasun egoeran dauden etxeak lehenetsi behar dira.

Dagoeneko eraikita dauden eraikinen energia-eraginkortasuna hobetzeko laguntzek aintzat hartu eta lehentasuna eman behar diote kolektibo horri, eta eraikinen energia-ziurtagiria hobetzea izan behar dute funtsezko helburutzat. Laguntza horien barruan, eragindako etxeetan, energiaren autosorkuntza eta aurrezteko neurriak sustatu behar dira.

4.4. Energia-pobretasunaren ondorioak arintzeko gizarte-neurriak

Energia-pobretasunari aurrea egitea posible izan ez denean, martxan jarritako gizarte-politikek barne hartu behar dituzte, bereziki, ondorioak *a posteriori* konpontzeko mekanismoak, jarraian aipatutakoak, besteak beste.

4.4.1. Gizarte-larrialdietarako laguntzak, energia-pobretasunak eragindako etxeen eraginkortasuna hobetzeko

Gizarte-larrialdietarako laguntzak arautzen dituen legean sartu beharko lirateke, etxebizitzaren eraginkortasuna eta energia aurrezteko gastuak ordaintzeko laguntzak, kolektibo ahulenei zuzendutakoak. Adibidez, honakoak sar daitezke: bonbilla arruntak kontsumo txikikoekin ordezkatzeko laguntzak, etxetresna elektriko eraginkorragoak erosteko laguntzak edo instalazioen eraginkortasuna hobetzekoak.

Gizarte-larrialdietarako laguntzen aurrekontu-sail horrek aintzat hartu behar ditu urteko aldi kritikoenak (abendua-urtarrila-otsaila-martxoa).

4.4.2. Energia aurrezteko laguntzak lotzea

Halaber, bidezkoa dirudi, gizarte-zerbitzuen bitartez, energia-gastuak estaltzeko gizarte-larrialdietarako laguntza horiekin batera, energia-ikuskaritzak edo aholkularitza-programak sinatzea, energiaren gastua mur murrizteko (kontratatzeko modalitatea nahiz ohiturak aldatzea, kontsumoa gutxitzeko).

